Ricardo Burutaranek eta Nekane Arzallusek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen el Sr. Burutaran Ferré y la Sra. Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**9.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak egina, etxebizitzaren behatokia sortzeko erabakia ez betetzea dela eta.**

**9.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la falta de cumplimiento del acuerdo para la creación del observatorio de la vivienda.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babespean, Etxebizitzaren Behatokia sortzeko akordioa ez betetzeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio alkateari, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean azter dadin.

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, para ser tratada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, sobre la falta de cumplimiento del acuerdo para la creación del Observatorio de la Vivienda.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Donostiako Udalbatzak Ebazpen Proposamen bat onartu zuen 2018an, EH BILDUk hala eskatuta, eta haren hirugarren puntuan hauxe adierazten zen:

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia, em 2018, aprobó una Propuesta de Resolución, a instancia de EH BILDU, en cuyo punto tercero se decía: “Al

"Etxebizitzaren portaeraren jarraipen zuzena egitearren, alokairuko eta/edo erosteko etxeen prezioen bilakaerari nahiz eskaintzaren bilakaerari dagokienez, Etxebizitzaren Behatokia sortzeko eskatzen diegu alkateari eta Udal Gobernuari; era horretan, gertatzen diren aldaketak eta Udalak gauzatzen dituen ekintzek merkatuan dituzten ondorioak monitorizatu ahal izango dira".

objeto de hacer un seguimiento directo del comportamiento de la vivienda, tanto en lo referente a la evolución del precio en sus distintas modalidades (alquiler y/o compra) como a la oferta, se insta al Alcalde y al equipo de gobierno a que cree el Observatorio de la Vivienda a fin de monitorizar las variaciones que se vayan produciendo y las repercusiones que tienen sobre el mercado las distintas acciones que se vayan implementando por parte del Ayuntamiento".

Puntu hori aho batez onartu zen. Hau da, Udaleko talde politiko guztiek, salbuespenik gabe, Etxebizitzaren Behatokia sortzeko beharraren alde bozkatu zuten. Ulergarria dirudi, kontuan hartuta Donostiaren oinarrizko arazoa etxebizitzaren prezioa dela.

Dicho punto resultó aprobado por unanimidad. Es decir, todos los grupos políticos del Ayuntamiento, sin excepción, votaron a favor de la necesidad de crear un Observatorio de la Vivienda. Dicha circunstancia no resulta extraña en una ciudad cuyo problema fundamental es precisamente el precio de la vivienda.

Baina denbora igaro da, eta oraindik ez da Etxebizitzaren Behatokirik sortu.

A pesar del tiempo transcurrido lo cierto es que el citado Observatorio sigue sin crearse.

Horregatik, idatzi hau sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau aurkeztu du:

Por todo ello, el concejal que suscribe formula la siguiente INTERPELACIÓN:

1.- Zergatik ez da oraindik sortu Etxebizitzaren Behatokia? Udal Gobernuak badu zentzu horretan hartutako konpromisoak betetzeko asmorik?

1.- ¿Por qué razones no se ha constituido hasta la fecha el Observatorio Municipal de la Vivienda? ¿Piensa el Gobierno Municipal cumplir los compromisos adquiridos al respecto?.

Donostian, 2020ko otsailaren 7an

En Donostia, a 7 de febrero de 2020

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Sin: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU"

Ricardo Burutaranek eta Nekane Arzallusek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen el Sr. Burutaran Ferré y la Sra. Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**10.- Galdera, Elkarrekin Donostia taldeak egina, Ibaetako erreka txikiko isurketak direla eta.**

**10.- Pregunta, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a vertidos en regata de Ibaeta.**

"Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikuluaren babespean, Ibaetako errekan egindako isurketei buruzko GALDERA hau aurkezten dio Enrique Ramos Ekologiako zinegotzi ordezkariari, Lurralde Garapen eta Planifikazio BatzordeAN AHOZ ERANTZUTEKO.

"Haizea Garay Gallastegi, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente PREGUNTA ORAL a la Concejal delegado de Ecología, D. Enrique Ramos, para su tratamiento en la COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO, relativo a vertidos en la regata de Ibaeta.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Urtarrilaren 21etik 27ra bitarte isuriak detektatu dira Ibaetako errekan, UPV/EHU parean. Erreka hori Tximistarri muturrean itsasoratzen da inongo

Entre los días 21 a 27 de enero, se han detectado diferentes vertidos en la regata que trascurre por Ibaeta a la altura de la UPV, dicha regata

tratamendurik egin gabe, eta, beraz, isuriak itsasora iristen dira.

Aipatu isurketak ez dira puntualak, aldian behin gertatzen ari baitira azkeneko urteetan.

Berriki zenbait esku hartze egin dituzte URA agentziak eta Donostiako Udalak, Ondarretako hondartzan ur beltzen isuriak egon direla salatu baitute talde ekologistek. Zehazki, kolektore orokorra iragazgaiztu dute eta zenbait enpresa sarera konektatu dituzte Igara inguruan, baina, hobekuntzak gorabehera, bistakoa da ez dela nahikoa, berriz ere isurketak gertatu dira eta.

Talde ekologistek salatu dutenez, azkeneko isurketak Donostiako metroko obrak egiten ari den enpresak egin ditu, inolako baimenik eta ingurumen kontrolik gabe.

Hori dela eta, galdera hauek egiten ditugu ahoz erantzuteko:

AHOZ ERANTZUTEKO GALDERAK

1. Udal Gobernuak badu Igarako errekan salatu diren isurketen berririk?

2. Aztertu du zer jatorri izan duten isurketek? Baieztatu dezake metroko obretan izan dutela jatorria?

3. Udal Gobernua jarri da harremanetan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin eta URA agentziarekin, isurketa horien berririk ba ote duten jakiteko? Erantzuna baiezkoa bada, badaki espedienterik zabaldu ote den?Jarri da zehapenik? Erantzuna baiezkoa bada, zehapen ekonomikorik egon bada, zein da zenbatekoa?

4. Udal Gobernuak badaki isurketa gehiagorik egon ote den hirian metroko lanak egiten ari direnetik? Erantzuna baiezkoa bada, zenbat egon dira?

Donostia, 2020ko otsailaren 7a

Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia"

Enrique Ramosek eta Haizea Garayek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

desemboca sin ningún otro tratamiento a la altura de la punta Tximistarri, por lo cual estos vertidos van a parar al mar.

Dichos vertidos no son puntuales ya que se han producido durante los últimos años periódicamente.

Recientemente se han realizado diferentes intervenciones por parte de Ura y el Ayuntamiento de Donostia tras las denuncias de diferentes colectivos ecologistas de vertidos fecales en la playa de Ondarreta. Las intervenciones han sido la impermeabilización del colector general y la conexión de varias empresas a la red en la zona de Igara; sin embargo, a pesar de las mejoras, es obvio que no han sido suficientes, ya que los vertidos se han vuelto a producir.

Diferentes grupos ecologistas han denunciado que los últimos vertidos se han realizado por la empresa encargada de la realización de las obras del Topo en Donostia, sin ningún tipo de autorización ni control medioambiental.

Por todo ello realizamos las siguientes:

PREGUNTAS ORALES

1. ¿Tiene el Gobierno municipal conocimiento de los vertidos denunciados en la regata de Igara?

2. ¿Ha analizado el origen de estos vertidos? ¿Puede confirmar si el origen de los mismos puede ser de las obras del Topo?

3. ¿Se ha puesto en contacto el gobierno municipal con el Departamento de Medio ambiente del Gobierno Vasco así como con la agencia URA para saber si se han recibido denuncias por los citados vertidos? En caso afirmativo, ¿saben si se ha abierto algún expediente? ¿Se ha puesto algún sanción? En caso afirmativo, si hay sanciones económicas ¿de qué importe?

4. ¿Tiene constancia el gobierno municipal si ha habido más vertidos durante las obras del Topo en la ciudad? En caso afirmativo, ¿cuántos vertidos?

Donostia, 7 de febrero de 2020

Haizea Garay Gallastegui
Concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia"

Intervienen el Sr. Ramos Vispo y la Sra. Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**11.- Galdera, EH Bildu taldeak egina, hotel, ostatu eta apartamentu turistikoetarako baimen kopurua dela eta.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikuluaren babespean, babestutako hotel, pentsio eta apartamentu turistikoei buruzko GALDERA hauek aurkezten dizkio Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkariari, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean AHOZ ERANTZUTEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Informazio zehatzagoa lortzearren hotelak, pentsioak eta apartamentu turistikoak zabaltzeko edo handitzeko obra handiko lizentzien kopuruari, ohe kopuruari eta horien guztien kokalekuari buruz, galdera hauek egiten ditugu:

GALDERAK

1.- Legealdi honetan, obra handiko zenbat lizentzia eman dira hotelak eraikitzeko edo handitzeko? Zenbat ohe edo gela berri egongo dira ondorioz? Zenbat ari dira tramitatzen jada? Zer auzotan egongo dira?

2.- Legealdi honetan, zenbat lizentzia eman dira pentsioak zabaltzeko? Zenbat ohe berri egongo dira ondorioz? Zenbat ari dira tramitatzen jada? Zer auzotan egongo dira?

3.- Legealdi honetan, zenbat lizentzia eman dira apartamentu turistikoak zabaltzeko? Zenbat gela berri egongo dira ondorioz? Zenbat ari dira tramitatzen jada? Zer auzotan egongo dira?

4.- Legealdi honetan, zenbat komunikazio egin dira erabilera turistikoko etxebizitzak ezartzeko? Zenbat komunikazio egin dira ohiko etxebizitzetan alokairuko logelak ezartzeko? Zer auzotan egongo dira?

Donostian, 2020ko otsailaren 7an

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Nekane Arzallusek hitz egin du. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**11.- Pregunta, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el número de hoteles, pensiones y apartamentos turísticos autorizados.**

“Ricardo Burutaran Ferre, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA ORAL a la concejala delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, sobre el número de hoteles, pensiones y apartamentos turísticos autorizados.

JUSTIFICACIÓN

Al objeto de obtener una información más precisa sobre el número de licencias de obra mayor dadas para la apertura o ampliación de hoteles, pensiones y apartamentos turísticos, el número de camas y el emplazamiento de los mismos, es por lo que se se formulan las siguientes

PREGUNTAS

1.- En la presente legislatura, ¿cuántas licencias de obra mayor se han dado para la construcción o ampliación de hoteles? ¿Qué número de camas o de habitaciones suponen las mismas? ¿Cuántas están en tramitación? ¿En qué barrios están emplazados?

2.- En la presente legislatura, ¿cuántas licencias se han otorgado para la apertura de pensiones? ¿Qué número de camas suponen las mismas? ¿Cuántas están en tramitación?, ¿En qué barrios están emplazadas?

3.- En la presente legislatura, ¿cuántas licencias se han dado para la apertura de apartamentos turísticos? ¿Qué número de habitaciones suponen las mismas? ¿Cuantas están en tramitación? ¿En qué barrios se encuentran las mismas?

4.- En la presente legislatura, ¿cuántas comunicaciones para la implantación de viviendas de uso turístico se han realizado? ¿Cuántas comunicaciones para la implantación de alquiler de habitaciones en vivienda habitual se han realizado? ¿En qué barrios están las mismas?.

En Donostia a 7 de febrero de 2020

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU”

Interviene la Sra. Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(Gonbidatuak bertaratu dira)*

**12.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**12.1- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Erbitegi Etxeko bizilagunen egoerari burukoa (Okendotegi).**

“Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babespean, AHTren obraren eraginpean dauden Erbitegi etxeko (Okendotegi) bizilagunen desjabetzeari buruzko interpelazio hau aurkezten dio nekane arzallus hirigintza sostengagarriko zinegotzi ordezkariari, gune publikoen (obrak eta hiri zerbitzuak) batzordean eztabaidatu dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Okendotegi kaleko Erbitegi etxean bizi diren familiak oso kezkatuta daude, udalak berehalako konponbiderik ez duela ematen ikusita. Jakina denez, haien etxebizitzen nahitaezko desjabetze egoera batean daude, AHT eraikitzeko proiektuaren Donostiako zatia aldatzearen ondorioz; hori dela eta, beste bizileku bat eskatzen ari diote udalari, irail-urriaz geroztik.

Orduz gero, obrak ez dira eten. Obrek sortutako irisgarritasun arazoez gainera, bizilagunek obren eraginez etxeetan pitzadura ugari agertu direla baieztatu dute. Bizi diren etxeko beheko solairua hormaz itxita dago jada, eta badirudi laster etxebizitzak hustu beharko dituztela, urrian jada haien lurzoruaren presako okupazioa adierazi baitzen.

Udal Gobernuak, joan den urriko batzordeetan gai honen inguruan interpelatua izan ondoren, konponbide bat aurkitzeko konpromisoa hartu zuen, etxe hustuketa gertatu baino lehen. Are gehiago, alkateak, inguruko bizilagunekin egindako bilera batean, epean erantzuteko konpromisoa hartu zuen, familia horien kaleratzea azarorako aurreikusita egonda.

Gero, urriko udal osoko bilkuran, honako ekimen hau onartu zuten:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio AHTren obren erakunde eskudunen aurrean bitartekari izan dadin, Okendotegiko

*(Se incorporan las personas invitadas)*

**12.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**12.1- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la situación de los vecinos de la Casa Erbitegi (Okendotegi).**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación a la concejala delegada de urbanismo sostenible, dña. nekane arzallus, para su tratamiento en la comisión de espacio público, obras y servicios urbanos, relativa a la expropiación de los vecinos de la casa Erbitegi (Okendotegi) afectados por la obra del TAV.

JUSTIFICACIÓN

Las familias que residen en la casa Erbitegi, situada en la calle Okendotegi , están viviendo con gran preocupación la falta de soluciones inmediatas por parte del ayuntamiento. Como es sabido, se encuentran en una situación de expropiación forzosa de sus viviendas a consecuencia de la modificación del proyecto de construcción del T.A.V. a su paso por Donostia, y llevan solicitando al ayuntamiento una alternativa habitacional desde finales de septiembre-octubre.

Desde entonces las obras continúan. Además de los problemas de accesibilidad generados por la obra, las vecinas y vecinos han constatado múltiples grietas en sus viviendas, provocadas por la misma. La casa en la que residen tiene ya tapiada su planta baja, y todo hace prever que tengan que abandonar sus viviendas más pronto que tarde, teniendo en cuenta que ya en octubre se declaró la urgente ocupación de su terreno.

El gobierno municipal, tras ser interpelado sobre esta cuestión en las comisiones del pasado mes de octubre, se comprometió a encontrar una solución antes de que se produzca el desalojo previsto. Es más, en una reunión que el alcalde celebró con el vecindario de la zona éste se comprometió a darles una respuesta en plazo, estando previsto el desalojo de estas familias para noviembre.

Posteriormente, en el pleno del pasado mes de octubre fue aprobada la siguiente iniciativa:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal, a mediar entre las instituciones competentes responsables

Erbitegi etxeko nahitaezko desjabetzearen eta presako okupazioaren aurrean, donostiarren talde horri ordezko bizileku egonkor bat edo ordezko etxebizitza bat eman diezaieten, gaur egun legez bizi diren etxebizitzetatik kanporatu baino lehen.

de las obras del TAV, para que ante la expropiación forzosa y declaración de urgente ocupación de la casa Erbitegi de Okendotegi , se les proporcione a este grupo de donostiarras, antes del desalojo de las viviendas que ocupan actualmente de manera legal, una alternativa habitacional estable o vivienda de realojo.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio oinezko bide eta errepide seguruak berma ditzan, Okendotegi ingurura sartzeko baldintza egokiak ziurtatzeko, baita aipatutako obrak egiten diren bitartean ere.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a garantizar vías de acceso seguras, peatonales y viarias, que permitan facilitar una adecuada condiciones de accesibilidad en el entorno de Okendotegi, también durante la realización de las mencionadas obras.

AHTren obrez arduratzen diren erakunde eskudunen aurrean bitartekari lanak egin ondoren, ADIFek oso gutxi hobetu du hasierako konpentsazio ekonomikoa; hortaz, oraindik ere, erabat eskasa da. Etxea desjabetu eta eraitsi ondoren, ADIFen konpentsazioaren bidez bankuei ohiko bizilekua ordaindu ahal izateko eskatutako hipotekaren zorra ere ezingo dute kitatu bizilagun batzuek; hortaz, zor hori edukiko dute oraindik eta oso aukera gutxi izango dituzte Donostiako udalerrian beste etxebizitza bat erosteko.

Después de mediar entre las instituciones competentes responsables de las obras del TAV, ADIF ha mejorado muy poco la compensación económica inicial, de forma que ésta continúa siendo totalmente insuficiente. Tras la expropiación y el derribo de la casa, la compensación de ADIF no permitiría a algunos vecinos ni amortizar la deuda hipotecaria contraída con el banco para pagar su vivienda de residencia habitual, de forma que, mantendrían una deuda hipotecaria y se encontrarán con muy pocas posibilidades económicas para adquirir otra vivienda en el término de Donostia.

Badakigu Udal Gobernua lanean ari dela, kaltetutako bizilagunentzako ordezko bizileku egonkor bat edo ordezko etxebizitza bat bilatu nahian; alabaina, asteak aurrera doaz. Bizilagunek berehala kaleratuko dituztela ikusten dute, eta oraindik ez dakite non biziko diren; konponbide bat bermatuta ez edukitzearen kezka dute, eta urduri daude, gainera, udalak ez dielako informazioa ematen Udal Gobernua egiten ari den kudeaketei buruz.

Tenemos constancia de que desde el gobierno municipal se está actuando para buscar una alternativa habitacional estable o vivienda de realojo al vecindario afectado, sin embargo, las semanas avanzan. Los vecinos ven inminente su desalojo y todavía no saben dónde van a ir a vivir; les preocupa no tener garantizada una solución pero, además, les inquieta no tener información por parte del ayuntamiento sobre las gestiones que el gobierno municipal esté llevando a cabo.

Bizilagun horien etxebizitzak desjabetzeko data gerturatzen ari da eta bizilagunen informazio gabeziak bere horretan jarraitzen du; hori dela eta, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

En vista de que se aproxima la fecha de expropiación de las viviendas de estos vecinos, y ante la falta de información al vecindario presentamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak ez die informazioa ematen Okendotegiko bizilagunei, zergatik?

2. Zer aukera ari da aztertzen egoerari irteera bat emateko eta zer pauso ari da ematen haien ordezko bizitokia bermatzeko?

3. Udal Gobernuak Okendotegiko bizilagunei ez die adierazi nola egiten ari den ADIFekiko negoziazioa, zergatik?

4. Udal Gobernuak ordezko bizileku bat emango die AHTren obren desjabetzearen eraginpeko

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué el gobierno municipal no mantiene informadas a las vecinas y vecinos de Okendotegi?

2. ¿Qué alternativas baraja para dar una salida a su situación y qué pasos está dando para garantizar su realojo?

3. ¿Por qué el gobierno municipal no comunica a las vecinas y vecinos de Okendotegi cuál y cómo está siendo la negociación con ADIF?

4. ¿Va a reubicar el gobierno municipal a la totalidad de las familias que viven actualmente en

etxebizitza horretan bizi diren familia guztiei?

Donostia, 2020ko otsailaren 7a

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia"

Haizea Garayek eta Nekane Arzallusek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(Gonbidatuak bileratik irten dira)*

**<u>12.3- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Añorga errekan izandako isurketari buruzkoa.</u>**

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, "Añorga errekan izandako isurketari" buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Ekologiako eta Osasun Publikoko zinegotzi ordezkari Enrique Ramos Vispo jaunari, hari buruzko azalpenak Gune Publikoetako Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko urtarrilaren 27an, Eguzkik jada salatu zuen errekak kolore zurixka eta opako bat zuela Tolosa Hiribidean, Nanogune eta unibertsitateen parean. Isuriek jarraipena zutela ikusi zen eta urtarrilaren 31n Igara errekan, Tolosa hiribidean, atzemandako isuriak metro-pasanteko obretatik etor zitezkeela adierazi zuen.

Metro-pasantearen obrak direla eta, Zarautz hiribidean lanean ari dira, eta langintza horretan sortutako hainbat hondakin zuzenean bota omen dituzte, behar bezala tratatu gabe. Itsasgorak hondakinok errekan gora eraman ditu, eta horregatik geratu dira bistan. Bai Igarako errekan, bai Añorgakoan (biek bat egiten dute gutxi gorabehera Tolosa hiribideko puntu horretan, itsasora Tximistarritik atera baino lehen), isurketa puntualak izan dira.

Baina kasu honetan, metro-pasantearen lanetan ingurumen protokoloak betetzen ez direlako gertatu da isurketa. Eta kontuan izan behar dugu hau ez dela obra honek legez kanpoko isuriak egin dituen lehen aldia. Nahiz eta ETS izan proiektuaren

este inmueble afectado por la expropiación por las obras del TAV?

Donostia, 7 de febrero de 2020

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

Intervienen las Sras. Garay Gallastegui y Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(Se retiran las personas invitadas)*

**<u>12.3- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el vertido ocurrido en la regata de Añorga.</u>**

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación al concejal delegado de Ecología y Salud Pública, Enrique Ramos Vispo, sobre el vertido de residuos a la regata de Añorga, para dé explicaciones al respecto en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

El 27 de enero de 2020, Eguzki denunció que la regata de Añorga presentaba un color blanquecino y opaco en la avenida de Tolosa, frente a Nanogune y las universidades. Este colectivo constató que los vertidos seguían sucediéndose y señaló que los vertidos detectados el 31 de enero en la regata de Igara, en la avenida de Tolosa, podrían provenir de las obras de la pasante del metro.

Con motivo de dichas obras, se está actuando en la avenida de Zarautz, y, al parecer, se va a proceder al vertido directo de algunos de los residuos que se generan, sin el tratamiento oportuno. La pleamar ha llevado estos residuos río arriba, por lo que han quedado a la vista. Tanto en la regata de Igara como en la de Añorga (ambas confluyen más o menos en este punto de la avenida de Tolosa, antes de desembocar en la zona de Tximistarri), se han producido vertidos puntuales.

Sin embargo, en este caso, el vertido se debe a que en las obras de la pasante del metro no se cumplen los protocolos ambientales establecidos. Hay que tener en cuenta, además, que no es la primera vez que se producen vertidos ilegales en

sustatzailea, Udalak dagokion ardura hartu beharko luke, eta Ur Agentziarekin batera dagokion zaintza egin.

esta obra. A pesar de que el promotor del proyecto es ETS, el Ayuntamiento debería asumir la responsabilidad que le corresponde y realizar la correspondiente vigilancia, junto con la Agencia del Agua.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Por todo ello, la concejala que suscribe presenta la siguiente

INTERPELAZIOA

INTERPELACIÓN

- Zer dela eta ez ditu Udal Gobernuak hartu beharreko neurriak hartu isurketak gelditzeko? Ba al daki Udal Gobernuak zergatik gertatu diren isurketa horiek?

- ¿Por qué el Gobierno municipal no ha tomado las medidas necesarias para frenar los vertidos? ¿Sabe el Gobierno municipal por qué se han producido?

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak isurketen berri eman?

-¿Por qué el Gobierno municipal no ha informado de ello?

- Ba al daki Udal Gobernuak isurketak berriro gertatzeko arriskurik ote dagoen? Neurriak hartuko al ditu Udal Gobernuak isurketak berriro ez gertatzeko?

-¿Sabe el Gobierno municipal si existe la posibilidad de que se vuelvan a producir estos vertidos?¿Va a tomar el Gobierno municipal medidas para evitarlo?

- Jarri al da Udal Gobernua Ur Agentziarekin harremanetan isurien kontrola egiteko?

-¿Se ha puesto el Gobierno municipal en contacto con la Agencia del Agua para realizar el debido control?

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Donostian ETSek egiten dituen ingurumen protokoloen jarraipena egiten?

-¿Por qué el Gobierno municipal no realiza un seguimiento de los protocolos ambientales que ETS establece en San Sebastián?

Donostia, 2020ko otsailaren 7an

San Sebastián, 7 de febrero de 2020

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH BILDU”

Enrique Ramosek eta Garbiñe Alkizak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen el Sr. Ramos Vispo y la Sra. Alkiza Lopez de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

- - - - - - - - - -

Eta, beste aztergairik ez denez, batzordeburuak bilera amaitutzat jo du, goiburuan adierazitako eguneko 13:23an eta NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

Y, no habiendo más asuntos que tratar, la Presidencia declara terminada la sesión a las 13:23 horas de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.

**BATZORDEBURUAK O.E./**
**V.º B.º DEL PRESIDENTE:**

**Jon Insausti Maisterrena**